EGUNA JEL

Atzo ogei milla atara genduzan.
Noiz ogetabi milla?

Lgo. urtia | 37'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. otsalla 12'gna. barikua | 15 eunen

"Gerriaren nardagarrien artian, Euzkadi kalte eta okerren gain agertzen da." ("La Depeche")

Langillien lepotik sakelak puztu ebezanak, langille gaxuok menperatu, zapaldu eta ilteko sakelok uztuten diardue



Baranbio aldeko ibayetan atseden aldia egiten gudariak.

OREIK BAI MUTILAK?

Londres.—Gibraltar'ko Reuter izparkari batzak, aditzen emon dabenez, komunisten buruzagiak Malaga'tik iges egin dabenean 50 miloiren balioa eruan dabe.

DINAMARKA'N BAKE-ZALE

Copenhague.—Dinamarka'ko Lege-Nagusia'k España'ra gogozko gudariak bialtzea galerazoten dau ta Steincke ministroak Aldundian esan daunez. Dinamarka'k betaren ez bestearen alde ez dauala jokatu beaŕ esan eban beste aldun batek, be. Jakiña da izan Dinamarka'tik, gogozko gudari batzuk España'ratu dirana.

FRANTZESAK EZ DIRA FRANCO'GANA JOAN

Paris.—Frantze'ko Salerosketa, Nekazaritza ta Erbeste arazuetako ordezkariak, Franco'gana españaŕ pirita erosteko aton dutera joan dirana, guzuŕa ei da.

Frantze'ko Erbeste-arazuetako ministruak orixe argitu dau.

TROTZKI'REN AURKA

Mexico.—Mexico'ko baltsakeri zaleak Trotzki'k ezertau parterik artzetik ez dabe nai ta indaŕez baiño ez ba da, be, galerazoko dabe.

ARERIOAK KANPORA

Mosku.—Stalin'en areriuak baltsakeri-zaleen afteko batzetatik kanpora jaurtzen diñardue.

Gudari talde onek, guda-esiak egiñen izaten dau bere zeregiña.

"EGUNA" KALIAN

Erriaren arrera ona

Aufera guaz.

Amazortzi mila ataraten genduzan eta. Atzo geyago atara biaŕian aurkitu giñan.

Goixeko bederatziak orduko Bilbao'tako ataraten diran iyeki gustiak sa'duta egozan eta eguerdirako bigaŕen ateraldi bat egin biaŕian aurkitu gi-dan.

Egunetik egunera gure izpaŕingiau ebetuten alegintzen gara, eŕiaren afera on eta eskabidiei erantzuteko.

Lana lan aspertu barik ekingo daubagu gure arloari.

Orain Bilbao'ko beste edozein izpaŕingik baño izpaŕ geyago argitaltzen dogu. Eta ez atzeratuak, egunekuak baño. Lasteŕ izpaŕ sail geyago agertuko ditugu oraindik.

Asmo andiak darabilguz eta gogo bixia.

Gure izpaŕingia etxe gustietan sartu arte ezkara geratuko.

Eskeŕak gure laguntzale ta erosliei ta aufera.

Kontu - kontari

Euskerak indaŕ aftu dula ezagun da gudarion artean. Eguna argitu orduko lenengo galdera izpaŕingirik etoŕi dan. Oraiokan eguardi aldea asaltzen dira, ta lenengo galdera ¿EGUNA etoŕi al da? ¡Baj! Aŕapaska apurtu beaŕian eskutik kendu oi diegu ekaŕzaliei, ta oiak bereala zabaldurik, irakuŕi beaŕen amoruz; begietatik malkoak irten arte zearo uŕatzen ditugu izpiak.

Asteaŕteko EGUNA ¡ze ikusgaŕia! Lenengo oŕian zekazkien argazki aipaŕiak apaintzen zuten gure begiko egunkarja. Eta, bertan zetoren elizkizun beŕiatzaz... nere lumak ezin asmatu leike bere aunditasuna.

Mendian egon beaŕa izan nuan igande goizean. Ordea, guk ere bai gendun mesa, ta Goiko Jaunari bjotzez eskatu genion idazle ziñoparen gogo alde. Goian bego.

Agate Deuna umore onenetakuakin espatu gendun. Ez da mirari, emendik eunki gutxi arkitzen da baseliza, ta bere oroitzat gaŕko egunez eusko abesti estitzuak abestu djtugu.

* * *

Entzun Getari'ko biztanleak. Alderditzea irikia dago, ta nai duanak bere izenak eman; guk pozik eta majtetasun anaikofenakin aftuko djtugu. Alegiduko naiz neu Bilbo'ratzen, eta asaldu, Ibañez de Bilbao, 26'gaŕenera.

EGUZKI.

(Amayur'ko gudari.)

Euzkadi erbestean

EZAGUTZEN ASI DIRA

"La Depeche" izpaŕingiak españar gudearen zatarkeri ta zitalkeriekaz idazten dau. Nardagaŕiok agertu ondoren, diño.

Oaŕ bat egiteko gara oraitio Euzkadi.

Euzkadi'n etxako iñori bizitza eskubiderik ukatu ezta erlejiño azkatasunik, era berean jaubetasun eskubiderik.

Gerlaren nardagaŕien gain Euzkadi

ZER YAZO ETE ZAN?

Paris. — Frantzia'ko itxas-ertzean idoro ebezan iru gorpuei buruz osagileak epaikariei emon dautsoen agiriak darakusgunez gorpuok zauririk ez dabe ta zauriak-bide ez dira il. Eskuak eta ankak lotuta bizirik itxasora jaurtiak dira gizonok. Agintarien aburuz España'ko Erkalaŕen itxasontziren batero asaŕetuta jaurtiak izan daikez.

ALEMANI'REN KOLONIAK

Paris.—"L'Echo de Paris" egunerokoak diñonez Gobernu ingeles ta prantzesak koloni auziak autu aldiak izango ei ditue.

Autu aldi oneik, ordea, Halifax eta Von Ribbentrop'ek ez omen ditue asiko.

PAXISTEN IGESI MALAGA'TIK

Almeria.—Malaga'tik uri ontarantz 150 mila malagataŕak aldo egin dabe ariñak-arin paxisten agindu pean biziteari gogoŕ deritxoela-ta.

ITALIAŔ ETA ALEMANAK MALAGA'N

Paris.—Frantze'ko izpaŕingi geyenak, paxistak Malaga aftu dabela ta arj dira.

Espaŕak paxisten garaitz ez omen da izan, ordea, iñolaz ere, aleman eta italiaŕ ena baizik.

POLONIA'K BE, BERE BURUA ZAINDU NAI

Varsovia.—4 urteren buruan Polonia zaintzeko izkilu ta gudagaitan eragilleko mile mióoi ziotys emotez erabagi dau Polonia'ko Aldundiak.

IRITZIYAK

¿LUZE EDO MOTX?

Aguŕ jaunak. Eta labuŕ jaunak. Batez ere labuŕ.

Euzko-idazlariyak labuŕ izan biaŕ degu geure lanetan. Idazlari batentzako saririk onena irakuŕle asko eukitzia da baña eztegu irakuŕle ugaririk izango luzi ta aztun idazten ba'degu.

Esandetanagatikan, iñoŕk eztu usteko lan txikitan gauza txikiyak bakaŕik esan litezkiela. Sermón de la montaña deitzen zayon itzaldiya euzkel-egutegiko oŕi batian saŕtu liteke. Ala ere gauza mamitzuagorik ¿esan alda munduan?

Idazlari eta sermoi-lari askotxok, beren jardunak luzetu ezkero obeto geatzen dirala uste dute. Ikusi zagun: itzaldi baten sustraya txikiya izaten da, eta argiya. Oŕela ba, txikiya ta argiya da "Aita guria"; ere baña itz labuŕ edeŕ oyek beŕiketakin apaintzen asi ezkero ¿zer gertatuko da? Auxe: ainbeste itz-jariya ren taŕtian sustrai edeŕa galduta edo itota geldituko dala.

Ara zer gertatu zan bein. Gizon gaizto eta jakintsu bat saŕtu zan eleiza batean. Ain egoki, orduntxe apaiz jauna sermoya egiten azi zan. ¡Edeŕki alaŕe Gizon gaiztuaren aurian maya txiki bat zegon zilaŕezko bandeja edo ontzi batekin, diruak jasotzeko.

—Sermoi edeŕ onek merezi, ditu bost lauŕleko—esantzun beretzako.

Eta bost lauŕleko txuri bota zituan ontzira. Baño andikan ordu laurdenera ikusirik sermoia luze baño luzeago zijuala asmo au aftu zun:

—Bi lauŕlekorekin ere ondo ordaindua dago—eta iru jaso egin zitun beŕiro.

Beste egon aldi bat egin zun, eta apai jaunak ere bai beste jardun izugaŕi bat. Ordun, gizon gaiztuaren burua oŕela zebilen:

—Alako itzaldi edeŕa alpeŕikaldu. ¿Zeñek daki orain asieran zer esan digun? Bi lauŕlekorik ere eztiyot utziko.

Diru guztiya jaso eta gero egontzan beste pixkabatian ere. Baño sermoia aufera zijoan etengabe. Gauza bat esan eta andik gutxira ura bera agertu. Alako edeŕki asitako itzaldiya nola leike oŕen okeŕ eta oŕenbeste korapilorekin jaŕaitzea? Gizonaren begiyak bandejara beitu zuten. Diru danak jasoak zeuzkan ordea. ¿Bada kizute orduan zer egin zuan? Bandeja aftu, besuan azpiyan gorde, eta kalera iges egin.

Gertaera ori goguan euki beaŕ degu euzkeraz idazten degun gustiyok.

Aguŕ jaunak. Eta labuŕ jaunak. Batez ere labuŕ.

KOPET-ZURI.

HUYSMANN, ESPAÑAŔ EŔIZA LIEN ALDE

Bruselas.—Sozialista aldunaren itzaldi ondoren, legetxeko buru Huysmann'ek itz egin eban, eta españaŕ Gobernu jatoŕ eŕi zalea begi argiz ikusten dauala, esan eban.

CUBA'KO ZOZIALISTA TA BALTSAKERI-ZALEAK ESPAÑA'KO EŔI-ALDEZLIEN ALDE

La Habana.—España'ko eŕi-aldezlien-alde arpideak asi dabez Cuba'ko ikasliak. Ikasleak gartsu ekin dautse erkaldaŕen alde.

ITALIA TA BALKANDAŔAK ALKAŔEN LAGUN

Sofia.—Italia'ko Lateŕ-arteko Zaingo-ko buruak Balkania Lateŕletako uriburuak ikertuko ei dauz. Ikeŕ oŕen arteko artuemonak geitutia nai ei dabe.

GRIPE IZUŔIA

Ginebra.—Europa guztian zabaldu da gripe-izuŕia. Izuŕioi baiña, aundiena Londres'en eta Inglateŕa'ko Egoaldian eŕda. 4.000.000 izuŕidun baiño geiago izan ei dira. Iru asteon buruan Londres'en 464 izuŕidun il ei dira.

KOLONIAK EMOTERIK NAI EZ

Londres. — Camara de los Comunes dalako legetxeko industri aldunaŕn bazkunak, koloniak bananduterik iñundik iñora ezin litekela ontzat aftu erabagi du.

Bazkun oŕek, lord eta diputaduen aŕtean irureun bazkide ba-ditu.

ETXE ZAIN

Cairo.—Suez'ko Kanal'eko Artezkaritzak Egipto'k bere burua zaindu dagian gertu daiten 15.000 libra emon dauz.

BILBAO

"Ezer ez ta festa"

ANTZERKIAREN BANAKETA.—"Kaximira", Ilaŕamendi andereñoa; "Antxoni Kaŕanpa", Etxabe andereñoa; "Batista", Etxabe jauna; "Xoluerdi", Uŕetabizkaia jauna; "Juxto", Arizmendi; "On Martzelo", Baŕiola jauna.

Antzaga'taŕ Toribi'ren egintza antzerki paŕeragióea euzkeraz.

IZPAŔ BELTZA.—Gintza Auzitegiko lendakari dan, Azkue'taŕ Josu, abeŕtzale zintzoaren izeba (G. .B), il zan atzo goiz aldean Bilbao'n.

Ozte aundia bilduŕik, aŕatsaldeko lauretan gorputz obiratzea izan zan.

Artu ezazu aspaldiko lagun zaŕ ori, gure aguŕ samin leiala.

Amayur'ko berriyak

Gauŕko egunez gogoratu gera, nola gauŕko egunez, zer jai edeŕa egiten genduban, batez ere oroitubaz, nola goizeko seiretan egoten giñala gure txistulariyak, ordu ori io zai ekiteko bere joaldiyetan, gauŕ tamalez, txistulari oyek, piperpote zaliak diranakin arkitzen dirade. ¡O oieri egin z oten laguntza, eta eman zaizkiyoten erez-tasunak nik ongi dakian bezela Kaxo'eneko goxuak eta ondoren pistugaŕibat, gero, ondoren "La Prazuela" (Batenon batek jakingo du "Prazuela" oŕetan nola ontzi batzuk geroago garbitzeko gelditu ziran) ondoren kale Baŕenea ta abaŕ ta abaŕ.., goizian gero gizontasuna jaŕaitubaz gure elizkitusunak betetzera, gero gozaldu, ondoren begiratu kalez-kalez alaitasun aundiyakin nola gure eŕiya poztutzen zituban eŕi gustiyak (gu ere bai taŕtian), gero bazkaltzera eta ondoren.. eldu-eldu-eldu ¡aupa! ura jayak, eta gauŕ lotzagabe batzuk diralako! Baztaŕ guzietan, negaŕa beste gauzikan ez!

Gure anaiak euzkotaŕak, pozik gueregana etoŕtzek, zaleutikan, beste batzuk eragozpen. ¡Alkaŕ ezin bildu! Garaj batian Iñautegi egunetan etzagik ez genuban ezagutzen. Gauŕ, gu euzkotaŕ geranak Jaungoiko-ari eskatuko djogu begiyak zabaltzeko gure Abeŕi maite-aun aurka dabiltzanari Entzun dezadela.

BIZARGIN.

Au, ori ta bestea

Franco mikea diru billa

Langillien izerdi lapatsetan urre gorria billatu ebenak, diru ugari damotse Franco emeari.-Len langillien lapurrak ziran; orain euron erailtzalliak.-Eta zuzentasuna ta maitasuna goratuten jarraituko dabe!

"DIRUTSU - TALDEA". — ESPAÑA'KO TA KANPOKO DIRUTSUAK ALKAŔEKIN; DANOK LAGUN

Paris. — Mile miloi laurlek, uŕetan Franco'ri.

Munduko diratsu nabarmen guztiak doguz Francotaŕen artean.

Eŕia zuzitu ta bideratu-aŕen ez dautso ardurarik berea aufera eruan-ezkero. Oŕen afua ta aundi-ustekoa da izan, be.

Franco'ri laguntzen dautson dirutsu-taldeak gerea jaŕaitu dagian beste diru-mordo bat emon dautso, uŕetan emon be; esaten danez mile miloi laurleko.

Zeintzuk diran Franco'ri laguntzen dautsen dirutsu-taldekoak?

España'ko miñetan, burni-bidietan, burdin-gintzetan zer galdu daben dabenak doguz oŕeik.

España'ko Gobernua'k lo egozanean eta España zatika-zatika saldu ebenean euren ogasunak egin ebezan kanpotaŕ eskuartetsuen moroi bat dogu ez dagiezan ipiñi dabe.

Dirutsu-talde oŕen buru Juan March dogu. Gizon oŕek zer galdu aundiak eukozan potasa, petrolio ta itxas-ontzietan eta zer galduok galtzerik ez dau naŕ. March bakaŕik ez dago.

Gudako gastuak, emoikizunak ordaintzeko-edu ez dauko bakaŕik.

Sir Aukland Geddes Riotinto'ko Taldea'ren lendakaria dogu March'en ufengo. España'ko Gobernua'k eukan irabezpiderik aundienetarikua Riotinto'n eukan eta diru apuŕ baten saldu

Ogasun - Zaingoa Jose Etxegaraj'ren ardurapean eguanean saldu zan. Lau miloi libra esterlina balio dauz gauŕ mina oŕek. 1914'gna. ezkero garazkiak gora ta gora duaz. Zuzendari ta aituak ingeletaŕak dira ta miña oŕetan eta Neroa ta Zalames'en lau egiten eben langileak eŕukari ibili izan dira.

Langile oŕetxek egin eben 1920'gnean. Andalucia'n izan danik oporketarik gogoŕena!

Aufetik' be, España'n diru asko eukan "Rotschild" Garatz-Etxea'k, Riotinto'n baŕuko sartu zan-ezkero, Espaŕian eskuarte aundia izan dau.

Ludian ugarien merkurioa dau tokia Almaden da. Almaden oŕetan be ba-dau zer ikusia "Rotschild" Garatz-Etxea'k.

Gure gudariak, afatoiak bakaŕik jaten dabezala diñoe paxista izpaŕingiak.

España'ko beran-miñen jabe bakaŕ izan nai daben Peñarroya-taldea yatorku gero.

Peñarroya-talde oŕek 300 miloiren domua dau ta bere etxea Paris'en dauka. Talde oŕen buru dan Iberteaux ondo konpontzen da Frantzia'ko dirutsu nagusi diran Mirabeau, Ledeuz ta Homescout jaunekin, be, ta Alemania'ko Guda-izkilu-gintzako ola nagusienen jaube dan Acufschlager, agiriz ezaŕen azpitik lagun yakue.

"Dirutsu-talde" oŕetakuen arten España'k, jauntxo batzuk doguz. Jauntxo oŕeik Romanones eta Villamayor dira.

Zer galduak ba-dabez, ondo galduko yakez zer galduok. Ba-dira beste batzuk, be, "dirutsu talde" nagusikoak ez diranaren Franco'ri laguntzen diŕarduenak. Bultzi, ola, tximistargi ta barni-bide jaube diran oŕeik, bultzi, ola, tximistargi, ta burni-bide guztiok galduko dabez.

Munduko dirutsu guztiok aurka doguz. Alpeŕik izango yakoz baiña diru oŕeik. Rotschild Carlos Cahen, Humberto de Wender eta Aufschlager dirutsuok euron diruak Uakurtza eko Erlegiño alde jokatu dagian emon ete dautsoez Franco'ri?

MALAGA'KO GOBERNADORE

Gibraltar. — Malaga'tik iges etazan 4.000 gudari eskuratu ei-dabez asaldariok. Algeciras'tik Malaga'runtz egin eben gudarien komendante izan dan Duque de Sevilla, Malaga'ko goberna-

EUZKO GUDA-OÑETAN

Laño ta euriz geldi

Araba aldeko guda-oñetara izan giñan atzo, ta gudariak euren tokietan geldi eta ernai egozala ikusi genduzan. Eguraldia moiz eta iluna, baño ta euritsua zanez, buŕukaldirik egiteko etzuten eretirik izan.

Beste guda-oñetatiko izpaŕak bardiñak jazo genduzan, baketsu eta egoneko aldia izan zutela atzokoa euzko gudu-zelayetan.

Itxasondokoan, eun eta geyago lagun agertu ziran, paxistak euren agindupean dituzten luŕaldietatik bidalitako emakume ta umetxo gaxoak, euren senaŕ ta gurasoak paxisten er-

Otxandiano

"Rebellon de la Sal,,'eko muxikaŕ eta gernikaŕ gudarijak, lefo onein bitaŕtez besaŕkada anaikoŕ bat bidaltzen dautzugu, artezkari jauna.

Otsala-4'gaŕenan, Ubidea'n aurkitu gintzan. Agate deunaren aureguna ixan be-ta, egunari yaokazan abestijak abestu genduzan. Eta guri entzuten eŕi onetako biztanle gustijak aduŕa erijuela aurkitzen ziran.

Geuk esatiaŕen ez baña, abestu be ederto abestuten gendula-ta gagoz. Ubidea'n euzkeldunak bixi dira, euzkerazko abestijak pozik entzuten dabezanak. Eurak iñuenez, orain-aŕte gustijan, zozolistuen abestijak-eta baño ez ei-dabez entzuten ixan: gaztelerazko abesti ganorabakuak. Eta guri entzun euskubenian, eta ain zuzen be, Agate deunaren aintzazko abestijak, ¡areik erakutsi eben poza, neuŕi bako poza ixan zan...!

Agate deunaren abestijakaz batera, gure agintaŕi nagosijjen aintzaz be, bertsuak-bertso asmau ta abestu genduzan. Geure guda-agintaŕijei be bertso batzuk abestu geuntsezan, eta bai areik pozik entzun be.

Lasteŕ irabaziko dogun gudeatzaz be, itz neuŕtu batzuk abestu genduzan. Eta abesti onejk ixan ziran ubideataŕai atsegiñen ixan yakezan abestijak.

Gure abestijak, eŕiko udal-agintaŕijak eta gudari-agintaŕijak, itz goragaŕijakaz eskaŕtu ebezan Gu, eskaŕ-egite areikaz, pozez beteŕik laga genduzan. Eta eurak be, gure abestijak bide zirala, pozik geratu ixan zirala, argi ikusi zan.

Otsala-6'gaŕenian, Otxandio'ra itxuli gintzan an laga gebazan gudari-lagunak euren eŕijetaratuteko azke geratu zedixantzat.

Otxandio'n be Muxika'ko ta Gernika'ko gudari-mutilak Sabin Irakasle aundijagandik ikasi genduna agertu barik ezin egon ixaten gaŕa.

Aguŕ, ba, ta ufengoaŕte artezkari. Bitaŕtian, gu, emen, guda-oñian jardungo gara, Euzkadi-aldez guda ta guda.

"Iru bidjetako Txomin,
Txinbo ta Bixertxu."

Uaŕa.—Edeŕto mutilak. Jo ta keya atara, gurenda burestunaz burestunduta etxietaratuteko. ¡Gora Euzkadi!

Zeanuri

ABESLARIAK.—Agate Deuna'n abeslariak aldra bi izan dira aurten emen, euki doguzenak. Egunezkoa egazkinentzako txindia bilduteko, Aŕegi'taŕ batek aufetik abestuten ebala...

Zortzi abesti abestu ebezan; aufetatik batzuk:

Etxeko-jauna, txiki ta andi
Danon sakelak zabaldu
Euzkadi'rentzat egazkintxo bat
Ia zuzendu al badu.
Aguŕ uzaba ta etxekotxoak
Deun Agate'gaz jaraitu
Jaungoikoa ta Lagi Zaŕ alde
Daukagun dana izkindu.

Gabekoak Batzoki'koak ziran abes zoli ta gusti. Oso atsegiñez entzun ziran.

BALASI DEUNA TA AGATE DEUNA.—Urtero lez basotxaño bietan amaŕetan jaupak izan dira. Eguraldiak be lagundu daun ezkero zeyatik ordubete inguru dagozan ermitakoetara ozte gustiz andia erdu da.

ABEREAK.—Aragitegian egunotan aberik ezta il. Orain basetxeetan lodituten dagozanak aragitegireko tamala da ekaŕtea. A ta gusti be Durango'rako eroan dabez batzuk astartean.

ABEŔTZALEAK.—Abertzaleen alderdikide izan gura dabenak ixenak emon deizela Batzokian. Baita beste edozein lan bide edo zeregiñetarako.

Baseŕitaŕ bat

Gastelu Elexabeitia

"EUZKADI" EGAZKIÑAREN ALDE. — Aspaldítxuban diaŕa indartsubak jaurtiten dauskubez euzko izpaŕingijak "Euzkadi" egazkiñaren alde, eŕi gustijaren laguntasunagaz jorturiko egazkin bat Euzko Burubal ezkinteko asmoz. Asmo oni askok edeŕto erantzun dautsie eta guk. ikusirik geure anayak oraindiño be mendijan dirala euren bizija aŕiskuban ipiñita Euzkadi zaintzen gudari-etxe onetan aurkitzen garan artean, mendijan suizkilubakaz Euzkadi aberija zaintzen dan legez, emen be Euzkadi egazkiñaren alde al dogun artean lagunduteko beaŕtuta aurkitzen gara, berak naiz gudari-etxe, naiz uri, naiz mendijan bertan, areyoakandik al daben gustijan zaindutz eukiko gaituzalako.

Arpide bat zabaldu genduen eta andik lasterean, bere alde, auxe batu zan:

Garmendia'taŕ Markelin, 5 laufleko; Egiguren'taŕ Antolin, 5; Ardantza'taŕ Josu. 15; Sagarna'taŕ Jon, 15. Moreno'taŕ Maxima, 15; Artabe'taŕ Lon, 5; Añibaro'taŕ Jon, 5; Barandika'taŕ Dunixi, 2,50; Agiregoitia'taŕ Edorta, 10; Abasolo'taŕ Julen, 5; Olibares'taŕ Estepan, 2,50; Olibares'taŕ Joseba, 5; Muñoz'taŕ Pantzeska, 5. Ipiña'taŕ Jon Joseba, 5; Artzuaga'taŕ Imanol, 5; Iturbe'taŕ Gotzon, 7,50; Otxoa'taŕ Joseba Mirena, 5; Zuluaga'taŕ Kepa, 5; Artetxe'taŕ Polendin, 5; Olabaŕia'taŕ Domeka, 10; Zubigarai'taŕ Bonipaxi, 7,50; Axuria'taŕ Josu, 5; Sagarna'taŕ Emili, 5; Urkitza'taŕ Koldobika, 5; Bilbao'taŕ Andoni, 5; Estankona'taŕ Koldobika, 5; Garcia'taŕ Joseba, 150. Guztiz, 317,50 laufleko.

Egazkin oŕen alde, oraindik geyago egin geñela ta, otzalan 4'an., gure antxiñako oiturak jaraitu az batera, Agate Deuna goraldubaz batera, Euzkadi egazkiñaren alde, Zeanuri'tik Lemona'ra bitartean dagozan eŕijak, abertuten gudari aldra betek urten genduan.

Beribil nagusi bat euzko uzañez txukun-txukun atondurik, bitxabal eta txaŕde ziaŕ giñan gure ele garbijan, antxiñako oiturak eta Agate Deuna'k maite eban azkatasuna legez guk be eŕi gustijari Abeŕijaren azkatasuna zalea zabalduten Euzkadi egazkiñaren alde txindia zuzendurik.

Abestijak ederto urten eben, ta eŕijak txaŕago erantzun bez, bata batu zan txinditza 758,05 laufleko ixan ziran; euretatik 751'80 laufleko egazkiñaŕi izkinduteko.

Eskeŕik asko aŕatiaŕ gustijai, batzubei euren txindijagaz lagundu dauskubelako, eta ad.-adi entzuten egozalako besteai, bada gure naia ez bakaŕik da txindia, gure Abeŕija eta naia zein dan erakustia baño. Eta eskeŕak "Zidofa" euzkel izlari azkaŕari berak ain ederto atonduriko izkija egin euzkulako.

AŔEGI'TAŔ BAT.

Euba

Txoko paketsu ontan arkitzen gera osa sutuaz. Beŕi aundiŕik ez dlegu. Ikusten degunez abeŕtzaletasuna aruntztuta arkitzen da, obeto esan eltzeko dago alde ontan. Biztanle guziak, geientsubenak arerio ditugu, eleizkoi utsak izanik. Euzkotaŕon aurka daude Gipuzkoa'n lez emen ere esamez ugari, kirtenkeri ateraldiaz askotan sutzeko eran bat jartzen dute. Guda madarikatu onen ondoren Bernagoitia'ra el duko al dira izlari geutaŕok egi utsaz agertuaz euren oldozmen, biotzak, argitu, sutuaz euzko sendiara ekaŕiaz euren izatetza ikasiaz oroituaz bein betiko uxatuaz pozoituta lez arkitzen diran ain begiko ditugun baseŕitaŕok.

Bein betiko txoko ontakuok entzun: katoliko euzkelduntzat geure buruba ba daukagu, bide edefagorik zeruratzeko nor "Jaungoikua eta Lagi Zaŕa" oñ aŕitzat daukagun partidua baño?

Gofotua uxatu, maitasuna bide agertu oldozmena argituaz ikasiaz zinistatuaz nor geran, izan, agertu gaitezen kristau euzkeldun itzez ta egiez.

NOIZ AŔTE?—Egun abetan guda madarikatuaz oroitzen gera, noiz baño noiz etxekoen bat aguŕtuko ote degun itxaropenez. Orain aŕteko egintzak gutxigi badizkoe andra ta umetxuakin eurak aruntztutzen ekiñik; kupirik gabeko alenak. Euren oldozmena nundik ziaŕ ete dabil, geiago biurtuko ez gera lakoan ote da?

AUTS EGUNA.—Bernagoitia'n, eleizak agintzen duan bezela ospatu zan autsegun a. Balerako geientsubenak bertara eldu rik. sinismenduntasuna agertuaz. Garisu man arkitzen gera, oldozmen egunak ditugu. "Autsa az, ta autsa izango az."

UGARI BAI.—Aberťzaleok arerio ugari dauzkagu; guda oñetako egoeraz, abaŕ eta abaŕ. Geu neurtzen gaituzten erankiten diogunean eurak neurtzen, zigoŕtzen, zer gertako da? A ze aldakuntza geure aŕtekoren batzuk, maltzuŕ alenak.

BATASUNA.—Abertzale sendia apuŕtuta dago. Guziok Sabin maitaleok. ¿Noiz aŕte egoera ontan aldenduta bata besteaz? Betoŕ guzion euzko batasuna.

Bizi-Nai

Ondarreta

"EUZKADI" EGAZKIÑA ALDEZ.—Aspaldijan gengozan gogo bixijaz.

Euzko Eresbatza'ri erestaldi edo konziertu bat entzuteko eta igaro zan igandian eukin genduban, ereslari bikain oŕi, entzuteko zorijona.

"Euzkadi" egazkiña aldez txindija bilduteko erestaldi bat eraldu eban, igaro zan igande eberdaterako. Ondaŕeta'ko "Jose Luis Ibañez" Euzko-Eŕtzaña (Policia)' ren gudaletxian.

Gu, erestarijak ezgaren lez, gitxi ulertuten dogu eresti arazuetan, baña ulertuten dabenari entzun geban lez, erestaldi bikaiña ixan zan Gudaletxe aretara erdu zan Ondaŕeta'ko ostetza andijaren da Euzko-Eŕtzaña'n aufian jo ebana, Oŕegaŕik, txinditza edeŕa bildu eban. Oŕetarako ibili ziran emakume lirañak, ondoren Euzko-Etzaña'k emon ebana zenbatu barik. Beraz geure eskeŕik beruenak emon biaŕ ian aurkituten gara, bai, txindijan laguntzu eban ostetzari ta bai euzko ereslari trebiari gustijon laguntasuna biaŕ dalako Euzkadi geure abeŕi bakaŕa gazkatuteko, beste gauza askoren aŕtian, tramankulu egokijak eroŕteko.

BASAKIÑA

GABILONDO'TAR GERBASI
Goi jauregian bedi

Giza-batza ba-dabil, baña Jaungoikoa zuzendari edo giari dala—dio—antxiñako jakintsu batek.

Ba-dabil bai, ta Jaungoikoak nai duan aŕte ibiliko da: aŕk derizkionean, ibiltzerik naiko ez duanean... geldítzea, ta poto egitea ere deŕiorekoa izango da oŕaatik...

Gabilondo'taŕ Gerbasi zintzoa oraun aftean ibill da: euzkotaŕ leial eta kristau zuzenaren ar auz ibili ere. Goi Jaunaren deia izan duanean, ari erantzutea nai ta ezkoa zuan ordea.

卐 卐 卐

Matxinada ezeskaŕi bidegabeko au soŕtu zigutenean, lenez gañera sutsu jeiki zan Gerbasi, eŕiaren eta langilearen aufka... diru egaŕi ase eziña bide ermetan zutindu zitzaizkigun eskubi ixenekoen aurka.

Gure etsaiak, —"erlijioagatik" uzkurtza galbidean zijoalako jeiki zirala"—"radioz" eta izpaŕingiz mundu guzira zabaltzen jarduteak, burni guriťu gixa jartzen zuan Gerbasi'ren baŕen esia.

¿Zer egin dute Dolpuru agurgaŕien (encíclicakin)?

¿Zer egin zuten Jimenez Hernandez' ekin?

¿Zer, euzko-aldunak kristau Ikasbidearen alde Españaŕ latetxera aufkeztu zuten agiriarekin? Baña... ¿zer egin dute erlijio alde? ¿Noiz...? ¿Non?

Amaika onelako egi sakon entzunak gera bere ezpain gozoetatik.

卐 卐 卐

Gipuzkoaŕ Jufari eusteko diña izan giñan aŕte, amaika laguntz eta esku luxatze egiña zan Gerbasi jatoŕa.

Euzko-Gudaria zan bere amets eta itxaropena ta euzko-gudari alde zezakean guzirak, gertu ta prest ixaten zan.

Ezer gejago gabe bi ilabete aundiren buruan, paxiotaŕ gudariai eutsi zitzaien bezela eusteko—euzkotaŕak bakaŕik zirala diña—esan oi zuan sari.

Egun batez "eziña" etoŕi zan denok dakizuten bezela, ta ajnbat miña Gipuzkoa'n antzera, Bizkai espaŕura ingura beaŕa izan zuan eredu aŕtu beaŕeko karlataŕ ospatsuak.

Gernika'ko uri apaña zuan aspaldidandik ostatu, ta ez bear baten ondoren, bertan eman du azken arnasa, ta bertako luŕak estali dute Gerbasi goraigaŕiaren soña.

卐 卐 卐

Karlataŕ jaio zan, karlataŕ bizi, karlataŕ il..

Ez mingaña batera ta biotza besterа darabiltzkiten karlataŕ antzo, ez erlijioa gaizkatzeko Mahomataŕak dakartzkitenen gixa, ez erlijioaren izenean euzko-apaizak ilaz. Dios, patria, rey, itzak darabiltzkitenen antzera..., aŕeko oñaŕi zaŕari jaraituaz, Jaungoikoa ta fueroak beti buruan zituala baizik.

Oŕela jaio, oŕela bizi, ta oŕela il da Gerbasi.

"Nik abeŕtzaletasuna oso osoŕik onartzen det, era guzitara zuekin nago, baña nik, abeŕtzaletasunean ixena emanda baño askoz lan onurakoŕagoa egin nezake nagoan tokitik eta nagoan bezela"—esan oi zigun Gerbasi argiak.

Goi Jauregian bedi bere gogoa.

BASAŔI.

(Amaia).

Moskolarik baltzena



Berakin gixartiak beti daukon moskolarik baltzen eta kaltetsubena bat beintzat, uŕengo auxe ixan da: gixonak-gixon ixaten-batzuren batzuk kendu ezkero-ez yakiťia bizkundiak dabezan arazo ta bieŕkun askotan. Gure artian ba'dakusguz ikastarotza (carrera) ta egimen (ofizijo) ta askoko gixonak, ikasi ta dakijelako ikastarotza ta egimena, daukoguz. Gixonak-gixon ixaten ikasi ta yakitea euroen bizkundian, onura askoren ituŕija ta kalte askoren osakaya da.

Orain gustion lepo ganian daukagun gudate ondatzale ta negargaŕi andija, gixonak-gixon ixan ba'lira ¿ixango ete-genduan? Eskier (seguru) ez. Alantxik, gora-bera ta ezta-baida okeŕ eta biyuŕ ainbetek gixonak-gixon ba'lira, eŕijen gixarteko arazo andi ta txikijetan ba-lira ¿ixango leukie? Oraingo zenbakijan, ez edo.

Bardin-bardin, Euzkadi bere bizkunde eskubide ezin ukatuakaz, gixonak-gixon ba'lira, oso-osuan euzkotaŕena ixango litzake. Baña ezta. Antza daunez, ikastarotza ta egimen gatxena orixe ixan biaŕ da, gixonak gixon ixatia. ¡Oŕen gauza edera, ta oren urija!

Beste ainbeste, yazoten da zoriga-txez euzko-endiagaz.

Eretxi baten, euzko-semiak diran zenbakijan, gixonak-gixon ba'litzakez, euzkotaŕak be euzkotaŕ euren luŕian ixango litzakez. Endaz eta oduez euzkotaŕak diran asko be asko, gogoz euzkotaŕak eztira, atzeŕitaŕ puŕukatuak baño. Ixan biaŕ da, euroen gogo-baŕuban sarturik daukien moskola baltz ori dala-ta. Beti dabiltz ostikoka agirijan edo eskutuan euzko-abeŕi kaltez, beti euzkotasunari ta bere gauzari aspijak yan eta sustrayak ebaiten, bein-betiko igartu dedinizat-edo.

Euzkotaŕ baten arpegijan, goguan eta gixon-egipenetan ain motz eta ezain damoten moskola baltz itxusi ori eztabe gura atzindu uzkurtz deuna ta Jaungoikuaren amaŕ agintzak eskuban dabezela be. Euzko-abeŕtzaleen (1), gixon kaskaŕ eta euzkotaŕ kaskaŕ moskoladunak barik, Jeltzale gogo sotil eta lerdenak ixan gaizan euzko-odoleko gustijok. ikastarotz gatxena ta salena ondotxu ikasita, Mussolini'ri, Hitler'i ta gañerako euroen taldako lagun eta aizkide-kutunai ikaskizuna emoteko, euren besteko agimendunak ixan ezaŕen ludi aufian.

AKI.

(1) Euzko - bikaimen, dignidad

Kokotxak xaltxan

¿Zer dala ta, gure aldundiak aldatzen ez diŕa? Lengo "Gestorak" agintzen jaraitu bear ote dute beti?

Orain aldi luzutxo bat, Euzko Jaurlaritzak autatuak ditu Oaragindu bidez, nork izan bear ziran gure Aldundiko erki Aldun beŕiak, eta alare, lengoak jaraitzen dute, ez agindu eta lenguak kentzako oaragindurik egin ez balitz bezela.

Euzko araudia degun ezkero ¿zertan daude gure erki Aldundietan Madri'tik ezaŕitako "Gestorak"? ¿Ez ote ditugu orain izendatutakoak bere lekuetan ikusiko?

¡Papera edeŕa egindezute, Aldun izendatutako abertzale lagun zaŕak! Aldun ziñatela eta, orain ¡poto alajaña!

Egia esan zuen eŕua ez dala badakigu, ¿norena da eŕua?

卐 卐 卐

Gipuzkoa'n abertzaleak gogoŕ artzen dituztela beŕiak ditugu, ta ez beŕi onak aŕanoak ez badu.

Berdin Donostia'n ere, lan espetxean izan ziranak ber sartzea naikoa ez dalarik, len izan ez ziranak, sartu dituzten beintzat.

Emen beŕiz, aspertuko ez naiz esaten, faxixtak noiz ta nun nai, kallan lasai dabiltz, ez guri on egiteko asmotan noski pixti txaŕak baŕ dira.

Guda gizondutzia on da, baita ere basati antzera ez azaltzea, baño beti lengusu, beti "kintuena" egitia ere, ez da baŕena asetzen duen aŕazoa.

Kelean len azke dabiltzan faxixtak kaltegaŕiak genitularik espetxean zeuden beste batzuk, azkatu dituztela ikusi ditugu.

Emen, abek kanpora, eta an, gure sendikoak espetxera ¿ta beti orla?

Barau ta aragia usteko egunetan sartu gera, garizuman sartu gerala alegia.

Ez gure gogoz, baña tira, barau aldi, ta aragi usteak, gurekin diŕa aspaldin.

Aragi ezik bai pataŕa usteak ere. Egia esan, ez da askotan pataŕi ekasirik, ¡baña nork eran, Rotxilek edo! ta ori abertzale batzuki ez dan lekura, juaten ez dagikunik! Ta pozik juaten gera, ¡ta baita sakelak ustuta ir ten ere! izane pataŕa beintzat, garesti ziok Bilbao'ko Eŕtzoki'etan.

Gure sakelak ustutzen diran eran, batzun batzuenak bai ederki bete ere ez da ala bilbaotaŕ lagunak?

卐 卐 卐

¿Bilbao'n, faxixtak kalian dabiltzala? Bai alajainkesa, inguruko eŕietan ere.

Eŕi oitan sare aundi xamar batez. ¡A zer nolako aŕantza!

Perloiak ezik, zimaŕoi galantak badabiltz azal azalian buŕundara dariotela.

Ni agintaŕi banitz, ez egun laurleko "multaz", bestela, zerbait geigo estutuko nituzkeala ta nago.

Itxasona zimaŕoiak, ¿txurikin bidez aŕapatzen dirala? Ez du abek, txurikin ta "aparejo" aundiŕik bear.

Saria, saria, eŕiz eŕi maiz erabili, ta "aŕasta", "cubierta", beta zimaŕoi, egaluxe, moko luxe naiko kabuxa ere etxeratu.

Zimaŕoi, perloi, ta kabuxa abek etxeratu exkero, beste Gipuzkoa'n dabiltzan krabaŕoka aien beŕi, emango luteko abek.

¿Ezetz? Berako, ondo eztiutu ez-

BILBAO'KO izparringijak diñuena

"Euzkadi"

"Antes y ahora. Europa debe recordar." Olantxe ixenpurututen dau izpaŕingi onek lenengo zeŕendako idazlana.

Len eta orain. "Europa'k gogoratuko dau" esatiaz, 1914'tik 1918'raŕte iraun eban lau urteko guda nagosija oroimeneratuten dausku. Eta oroi onegaz diñoskuna auxe da: kistaŕikasbide ta gixabide era gustijen ganetik Belgica'ri oldaŕtu ixan eutsan Doistefija'ren alde agertu ziranak, gauŕ be doistefijaren alde agertu dirala. Indaŕa jaungoikotzat aŕtuta eŕi eskubide gustijak deuseztuten ibili ziranen alde guda ankeŕ aretan jagi ziranak, gauŕ be, indaŕa aurtik dabela eŕi-eskubide gustijen aufka jagi diran doistaŕai salduta ikusten dirala.

Orduban, Belgica katolikearen aufka jagi zan Alemania protestantiaren aldez agertu ziran españaŕ katoliku bakanak, gauŕ be. Dolpurubak ezestuten daben Hitler'en latefkerearen goraltzaliak dirala.

Mussolini'ren gudarozte indaŕtsubak Abisinia indaŕgia apuŕtuten iñarduben aldijan be, españaŕ katoliku ixeneko eskumataŕak Mussolini'ren alde agertu ziran, eta Goiko Jauna'ren zuzutsaren aufka; indaŕaren alde, gixa eskubidiaren aufka. Euzkotaŕak uskurtzaliak, ostera, orduban eta orain be, Goiko zuzutsaren aldez agertuten dira, gixa-eskubidian aldez.

"Tierra Vasca"

"A vueltas con la Sociedad de Naciones" ixenpurututen dau lenengo idazlana.

Ixenpurutik asiťa azkenearte, Latefijen Bazkuna'ri deragoyo ta eragoten dausa.

Orain London'en batzen diran Latefijetako ordezkarijak, len Ginebra'n batzen ziranak dirala esan gura dausku. Eta ordu ban Abisinia'ri oldaŕtuten eutsan Italia da la gauŕ España ta Euzkadi'ri oldaŕtuten dautsana be.

Orduban, Latefijen Bazkuna'k ez ei eban besterik egin ixan, Abisinia ondatuteko biaŕ ixan eban astija Italia'ri emon baño. Eta gauŕ egifen dabena be, antzekua dala agertu gura dausku: itz eta mintz, egunak-egun igazi. Eta bitaŕtian, Italia ta Alemania'ri gura daben gustija egiteko biaŕ daben astija emon.

Europa gentza bidera ekaŕiko ba da ekaŕi, axiak eruaten dabezan itz ariñakaz barik, egintzakaz ekaŕi biaŕko ei dabe. Baña benetako egintzakaz, beste gauza gustijen ganetik zuzutsa erakusten daben egintzakaz.

"El Liberal"

Izpaŕingi onen lenengo zeŕendea, izkiŕbako idaztijaz maŕaztuta datoŕala esan leike. Ixenpururik be ez yako ikusten, ez da ixenperik be. Burutik asiťa beraŕoko zeŕenda bijetan ikusten dan maŕazkija, idazti ertsijaren azala dala uste ixan leike. ¿Noren lana ete-da...? "Antonio" madridtaŕena...?

Ufengo zeŕendetan beste izpaŕok dirakufguz: Latefijen Bazkunak eraldutako egitaraba osuan betatuten dala. Italia ta Alemania'ri, euren gudarijak eta guda-izkilubak España'ko gudalburu asaldarijei bidaldu ai-ixateko biaŕ daben astija ixan dagijentzat, batzaŕari bixiz, españaŕ matxinaŕ koldaŕak esakatu ixan eutsoen gustija bidaldu eutsen.

卐 卐 卐

Eta doistaŕen egazkiñak, egazkin baŕi baŕijak, axe ziaŕ egaluten asi ziran, urŕik urira egurastuten eltzen ziran tokigustijetara erijotzea, negaŕa ta zoritxaŕa eruaten.

Egazkiñakaz be, baña, gura eben guren daŕik loťtu ezinda, Hitler guda zalia, beŕe menpe eukazan jopuak bidaltzen asi zan. España'ko gudalburu asaldarijen gurendea. Hitler'en gurendea ixango litzake ba. Eta Hitler orixen bila urten zan, eta orixen bila dabil: beŕe asmoz gudalburu etoyak soŕtu ixan eben matxinadearen gurendea.

"La Gaceta del Norte"

Madrid'ko guda-oñetako izpaŕak emoten dauz. Usera'ko etxiak: atatuten dauz, eta etxerik-etxe, banan-banan aŕtu dabezala diño.

Eta Usera'n artzen daben etxiari, baŕuratubaz batera, euren ikuŕiña galuŕeratuten ei-dautsoe, beste etxe baťartzen dabenian, jenengo aŕtu ixan da benari kenduta bigaŕen aŕtu dabenari telatu-galuŕian iminteko.

Eta uŕengorik uŕengo Usera'n aŕtu ixan dabezan etxiak ogei ei-dira. Eta eurelan, galuŕik-galuŕ erabili ixan dabena, ikuŕin bat. Ikuŕin oŕi, azkenerako, ibilijaren ibilijaz, margua aldatuta jaŕi ei-yake.

"Euzkadi Roja"

"La guerra la hemos de ganar nosotros" ixenpurututen dau lenengo idazlana.

Beste laterijetako edikejak gure auzirako gaŕantzirik ez daukala esatia, aldioni yaokazan gora-beraen ezaupideŕik ez ixatia dala diño.

Gudea eŕiketa bidez irabazten dala esaten dabenak, asko dirala agertuten dau Emen. gure aŕtian sortu dana, baña, genk irabazi biarko ei dogu, guda-oñian eta guda atzian, bijetan zintzo ta zuŕ ibilita irabaŕi be.

Guda-atzíak, auŕia zaindu biaŕko ei dau: gudarako biaŕ diran gudaskilu ta gudornijak zuzendubaz. Zuzen eta zintzo ez da biltzanak, baŕiz, espetxera saŕtu biaŕ ei dira. guzuŕa ta abaŕ edatuten dabiltzan paxiotaŕak aurkitzen diran lekura.

Gudea irabazieko, agintzaŕera bat eskatuten dau.

"El Noticiero Bilbaino"

"Gipuzkoa ta Araba'ko guda oñetako gudea" ixenpurutubaz esaten dauana da: Kalamua'n, paxiotaŕak batzestiaz sutoka dabiltzala.

Eta jaŕaiko lerretan diñuana da beste izpaŕ au: paxiotaŕak Elgoibaŕ'tik jaurti dabezan amairu emakume ta emeretzi umeeldu dirala Eibaŕ'era.

Eta beste leŕuan diñuana, auxe da: Markina'ko gudaoñera, beste aldeko paŕtankista bat etoŕi dala.

Elgoibaŕ'tik basoŕiztijak ixan baťlitzan daunbadoska dabiltzan guda oñera jaurti ixan dabezan emakume ta arein semeťaba txikitxubej azkenorduban paxiotaŕ ameŕak biderako eman ixan eutsen bijoŕpoza, itz bakan oŕ ez emon ixan eutsena ixan: Bizkai'ra eitzeu ziranian. Eŕgaragija ta umaragijaz alikatuko zirala.

Umetxikiz zamatuta dirala euren etxietatik jaurtiteko emakume ulkariiej olango itzak ogu en dabezela, bilotzik ez dabe. Edo, dabezan bijotzak, gizabijotzak barik, otzbijotzak dira. Basatikeri aundijagorik, ¿baŕute?

HITLER ETA GUDEA

Hitler'ek gudearen semia dalako erakutsi gura dausku. Ludi gustijaren jabe egin gura dala dirudi, aloroduna baťlitzan gustijen jangoantzo ludi aufian agertuteko.

卐 卐 卐

Ludijaz jabetuteko, baŕiz, gudaŕera berezi bat asmau dau... Ain tokiťako Latefira zuzendu da, ta an bere alde dagezan lateŕi gixonakin itundu.

Eta areikin gura ixan daben lez ulertu danian, olantxe esan dautse:

—Zubek, ain egunetan edo bestian, matxinadea soŕtuko dozube. Eta zubek soŕtuten dozuben matxinada oŕi irabazi dagi xuben, guda izkilubak eta gudarijak be, neuk bidalduko dautzubedaze. Laguntza onein ordaintzat, baña, gauza bat daskeztzubek: menpetasuna.

卐 卐 卐

Hitler'en guda erea, oŕ, goragoko leruetan idatzi doguna da.

Eta guda era berezi oŕi ikasteko autetsi daben Latefija, España.

Hitler, egun baten, España'ra zuzendu zan, ba, ta España'ko latefi buru nagosijakin itundu. Aldi aretako Latefi burubak, al ixan eben astija euren aldetik aŕtuta, gertau biaŕ zana, gertau eben. Bifaŕtian Hitler'ek, guda-izkilubak, egazkiñak eta gudarako biaŕ ziran tresna gustijak gertau ebazan.

Eta gustija gertu eguala uste ixan eba nian, España'ko gudalburubakanuntz zuzenduta arei esan eutsen:

—¡Jagi!, mutilak, ¡jagi!, guda izkilu. gudoŕni ta gixonak be, gertuta dauketzu bedaze ta.

卐 卐 卐

Hitler'en ¡eupadara!, España'ko gudalburu etoyak jagi ziran, eta euren eŕijari oldaŕtuten asi.

Eŕijan, baña, gudalburu etoyak eta Hitler'ek uste ixan ezebena idoro eben: benetan eŕija maŕe eben eŕi aldezle zintzuak.

Eŕijaren zintzotasunak, etoyen koldaŕkerija soŕtu eban. Eta koldaŕkeri arek, Hitler'en oñak idoro ebazan, euretan mun egiñaz Hitler jaungoixunari laguntasuna eskatuteko.

卐 卐 卐

Eta Hitler'ek, ludi gustijaz jabetuteko asmoz eginda eukazan suizkilubak. suaga berezijak, egazkiñak eta guda ixontziga

¿GURENDARI URTENCO ETE-DA...?

Hitler bero guda era berezijaz gurendarj urtengo dan ala ez, iñok ez daki, ez da berak be.

España'ko gudalburu etoyak lagun da bezala ikasten asi dan guda era orek ondo urtengo ba'leuskijo, urten, Hitler gudalaria, beste Latefi batera zuzenduko litzakela, baña, ontxerik bayeztu leikena dala esan leike. ¿Zeñetzra? Jakin ez, ba... Biaŕba. France'ra zuzenduko litzake, edo England'era... España'k ogudalburu etoyak eŕi-aldezlici ekaŕi ixan dautsen zoritxaŕari begijak ertsijak, zoritxaŕ gustionein itufbegija dan Hitler'i gura dabena edo al-daben gustija egiteko astija emoten dabiltzanai oldaŕtuko leuskijo....

Hitler gudearen seme antzo agertuten da, ba; gauŕ niri, bijaŕ zuri ta uŕengoareri ta bestiari oldaŕtuteko gertetan dabilanaren antzian...

卐 卐 卐

España'ko gudalburu etoyak soŕtu eben matxinadearen gurendea, Hitler eta Mussolini'ren gurendea ixango litzake. Europa gustija euren menpe jaŕi guran dabiltzan lateŕi bi oŕein gurendea, baŕiz, Europa gustijaren zoritxaŕa.

Eŕijak, Englan eta enparauko lateŕi askaltzaliak ikusi biaŕ leukena, orixe da. Baña ez ganetxutik, baŕu baŕutik eta ziaraztuta baño. Auzokuaren etxia eŕetan ikusten danian norberena gaiztuteko bideŕik egiten ez dabena, usterik gitxijenian etxe barik geratzeko aŕiskuban jarten dala esan leike. Eta oraingo matxinada au ikusita ezer jazoko ez baťlitzan besuak batutu geratzen diran lateŕijakaŕik esan geikena

ATZERRIKO IZPARRAK

Abisinia'ko lapurretan Alemania'k be parte

Gibraltar arriskuan jarri dala, diñoe ingelesak.-Zirt edo zart egitea ez dabe errez, ostera.-Ez Sartze Batzordea, adar-jote utsa izan da.-Atzerritarrak España'tik ateraziko?-Europar paxisten kukurrukuak ixildu eziñik.-Portugal'eko gobernuaren zirinkeriak.-Montevideo'ko langilleak España'ko lagunen alde.-Paxista'k jo ta su Malaga'n.

RUSIA'KO GOBERNUA'REN ASMOA

Paris.—Ondiño Gobernuaren ezanez ta ordez ezer esan ez danaren, Rusia'ko Gobernua'ren asmoak artega jarri dauz beste Gobernua'k.

España'n Alemania'k eta Italia'k ezarri dabezan erpiei esiak lasterr ezarri ez ba-daikioez "ez sartzeko" Batza'tik eta Lateri-Batza'tik, be, urten eta Rusia'ri berari buruak emoten dautsonez bakatzea erabagi dau ango Gobernuak. Rusia'ren erabagi orrek zapustu aundia artu dau beste Gobernuetan.

Blum'en alde dagozanen artean Rusia'ren erabagi ori abegi onez artu da ta Europa gera-bidean ipiñi dauan Italia ta Alemania'k sortu daben Laterí gaiteko une larri onetan erabagi ori ondo datorr etorri be, Blum'taren aburuz.

Hitler'en eta Mussolini'ren bide jausi da Malaga; baiña Malaga aren menpe jausita orrek danak irakiten ipiñi dauz ta "ez sartzeko". Batza ori aldia alpegik galtzeko baiño ez da izan gustien aburuz.

